

BALIO PROPOSAMENA:

Guk sortutako enpresan zapatilak eskaintzeaz gain, originaltasuna bermatzen dugu.

Gaur egun, jende guztia zapatila itxura berdinekin ikusten gara hori aldatzeko, gure enpresak modu artisau bati ekoiztutako zapatilak eskaintzen ditugu merkatuan ez baitau.

Originaltasuna bermatzeko guztiz pertsonalizatutako diseinuak eskainiko ditugu, bezeroaren gustuetara moldatuta.

Gazteak garenez ingurumenarekiko ardura daukagu eta horregatik erabaki dugu birziklatutako eta birziklatzeko kutxak erabiltzea. Gainera, plastikozko poltsak erabiltzearen ordez ehuneko poltsak saltzea erabaki dugu.

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktuak edonork erosi ahal du baina gehienbat gazteei zuzendutako zapatilak ekoitziko ditugu; diru-maila erdi-altukoak, moda gustokoa dutenentzat.

Gure helburua Sneak Inn zapatilak erosten dituztenak desberdinak, erosoak eta berdingabeak sentitza da.

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure hornitzaile sarea produktuen salmenta web-orri batetik atera genuen. Hornitzaile txinatarra da, Jiangxi Kaitan Digital Technology Co.

Gure hornitzaileak oso garrantzitsuak dira, gure proiektuarekin hasteko zapatila horiek lehengai moduan erabiliko ditugulako. Gainera, arrazoizko prezioa eskaintzen digute eta kantitate handitan erosteko ahalmena ematen digute deskontuak egiten baitute.

Zapatillak sartzeko kutzak Xiamen Yihuahui Industry And Trade Co. hornitzaileari erosiko dizkiogu, kutzak pertsonalizatutak egongo dira Sneak Inn logoarekin eta gure poltsak Wenzhou Yiwei Bags Co. hornitzaileei erosiko dizkiegu, hauek %100 kotoizkoa da.

DIRU SARRERAK:

Urte batean espero ditugun salmentak hauek dira: 19.715€. Adibidez, uztailan eta abustuan diru sarrera gehiago izango ditugu, uda denez, turista gehiago etorri direlako. Eta abenduan ere, gabonak direnez salmenta gehiago lortuko ditugulako.

Beheko taulan adierazten dugun bezala, zapatilak prezio desberdinak izango dituzte, diseinua nola egiten dugun arabera. Adibidez, eskuz eta inprimagailuz egindako diseinu pertsonalizatuak garestiagoak dira, lan gehiago behar dutelako.

MOTAK	PREZIOAK
Zapatila zuriak	25€
Eskuz egindako etxeko diseinuak	+7€
Eskuz egindako diseinu pertsonalizatuak	+12€
Inprimagailuz egindako etxeko diseinuak	+5€
Inprimagailuz egindako diseinu pertsonalizatuak	+10€

KANALAK

Denda fisikoan eta gure web-orrialdearen bidez salduko dugu gure produktuak.

Hiru motatako salmenta zerbitzu eskainiko ditugu; lehenengo eta behin, denda fisikoko salmenta era izango da naguia.

Gure web-orrialdearen bitartez bi era ezberdin egongo dira erosteko: zuzenean, Internetik eskatu eta zure etxera bidaliko dugu, hau da, bidaltze-gastuak bezeroak ordainduko ditu. Beste alde batetik, Internetetik eskatu eta denda fisikoan jasotzeko aukera emango dugu.

Momentuz igorpenak Espainia penintsularretik solik egingo ditugun arren etorkizun hurbil batan gure bidalketa zonaldea zabaltzea espero dugu.

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure enpresan bezeroekiko harreman eroso eta hurbila mantendu nahi dugu, horregatik, lehenengo erosketatik harremana finkatuko dugu. Hau burutzeko, erosketa bakoitzean kontaktu txartela bat emango dugu, horrela gure sare eta kontaktuak eskuragarri izateko.

Gmail-en bidez kontaktatzen dituzten bakoitzean, erantzuterakoan emango diegu bezeroei notifikazio aukera, edozein rebaja edo deskontu eskaintzerakoan, haiek izateko lehenak jakiten.

Edozein sare sozialen bidez kontaktatu ahal digute (Twitter, Instagram, Facebook, TikTok), %100 erantzun ratio batekin.

Web-orri baten bidez, bezeroek gure produktuak ikusi ahal izango dituzte, prezioekin eta guzti. Ere markatuko dugu produktu edo diseinu baten bat stock-an baldin ez badago. Ordea, web-orriaren bidez ez dira produktuak salduko, soilik dendatik. (Hau ez da erabaki permanentea).

Zapatilak erosteroakoan, poltsa eskatzen (eta minimo bat ordaintzen) dutenek, ehunezko poltsa bat jasoko dute zapata pareka.

(Poltsa txikia=pare kaxa bakarra, prezio baxuagoa/poltsa handia=bi pare-bi kaxa, prezio altuagoa).

Ehunezko poltsa birziklagarriak markaren hedapenean lagunduko dute, kalitatekoak direnelako. Helburu nagusia da bezeroek behin poltsak izanda, kalitatea aprobetxatzea beste erosketak edo erabilerak egiteko. Horrek gure enpresa-proiektuaren ospea handituko du, behin jendea besteei gure poltsak eramaten ikusterakoan.

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- Baliabide fisikoak: Lokala (zuzenki saltzeko), lokalaren atzean dagoen biltegia (produktuak gordetzeko), ordenagailua, datafonia, telefonoa, diseinuak egiteko materiala (inprimagailua, margoak...), birziklatutako kutzak, ehunezko poltsak...
- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Marcosek diseinuak margoztuko ditu, Aimarrek dauzkan informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak partekatuko ditu, Amaiurrek kontabilitatezko lanak eramango ditu eta Sofiak dauzkan salmentetarako eta antolaketarako abileziak erakutsiko ditu.
- Finantza-baliabideak: Lehenengoz, guk egindako ekarpenak, eta gero, Inguralderi eta beste hainbat bankuei eskatuko dizkiogu diru laguntzak.
- Bigarren hilabeteetik bako batera kreditu konte bat irekiko dugu. Hau egitearen abantailak hurrengoak dira: Dirua enpresaren esku jartzen da, dirua erabiliz gero, enpresak interesak ordaintzen ditu.

FUNTZESKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduera ekoizpena da, eta ehungintza-enpresa bat da, diseinu pertsonalizatuz apaindutako zapatillak diseinatzeko, eta entregatzeko betekizunak dituen.

Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta sare sozialak kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jardura ere, honela originaltasuna bermatzen dugu.

Publizitateari garrantzi handia emango diogu gure salmenten hazkundera ondoria izango delako.

KOSTU EGITURA:

-Kostu finkoak: Argia, Ura, webgunearen hostinga, lokalaren alokailua, soldatak (Hasieran ez dugu izango soldatarik, enpresa ez duelako diru asko ematen baina denborarekin, soldata minimo bat izango dugu), hornidurak, gizarte segurantza, maileguen interesak, publizitatea.

-Kostu aldakorrak: Erabiliko diren pinturak, zapatillak, margozteko, Telazko poltsak, hornitzaileak, lehengaiak, birziklatutako kutxak.

-Hedapen-ekonomiak: Lortu nahi dugu etorkizunerako kostuak minimizatzea eta diru salmentak gero eta gehiago izatea.